



Hidroelektrikolak

1. — Zertarako diren.

Hidroelektrikolek hibiaietako urak duen energia mekanika, energia elektrika bihurtzen dute. Orduan, urak energia mekanika handia eduki dezan, toki egokienak bilatu beharko ditugu: ur-jauzi bat edo meandro bat dira toki egokiak, haietan altura-desberdintza handia bait da hibiaiaren bi puntu (1 eta 2) artean.

**D - 1**


bi puntu hauek lotuz gero,
altura desberdintza
handia izanen dugu

D - 2

2. — Hidroelektrikola baten eskema.

Ondoan dakusguna hidroelektrikola baten eskema da. Azter ditzagun bere zatiak.

**HIDROELEKTRIKOLA
BATEN ESKEMA
(GOITIK IKUSIA)**




D - 3

Ura dagoen lekua urtegia da. Urari aurrera jarraitzen eragozten dion hormari presa deitzen zaio. Presa baten helburua altura-desberdintza lortzea da. Urtegitik, oker-ubidea ateratzen da, altura irabazteko. Ur-gordetza, altura-energia dugu bakarrik. Presio-ubidearen bitartez, altura-energia, kinetika-energia ta presio-energia (hau batez ere) bihurtzen da.

Errendimendu gehiena ematen duen presak (*) eskema hau du:

PRESAREN MOZTEA




D - 4

Segundo batetan, presa batek ematen duen ura kaudala da.

3. — Presa motak.

Azpian daukagun eskeman argiro ikusten dira presa mota guztiak.


(*) Hemendik aurrera «presa» hitza erabiltzen dugunean, presa ta urtegia batean adieraziko dugu.




Orain, ezagunenak diren presak zehazki aztertuko ditugu:

Lurrez egindako presa:

Bere moztea horrelakoa da:



Lurra irazkorra izanen da beti; irazkaitz izan dadin, bi sistema era eza-gutzen ditugu:




FRANTZIAR SISTEMA



INGELES SISTEMA

Grabitate presa.

Hona hemen bere moztea:



Indarrak:

$\frac{h^2}{2}$ — hidrostatika presioa.


H — ur-azalaren jelak egiten duen konpresioa (ur-azala jelatu egiten denean)

G — presaren pisua.

Grabitate presak seguritate handia du, baina garestia da. Horma, goian ikus dezakegunez, oso lodia da. Lur bigunaren gainean egiten ohi da.

Bobeda presa.

Merkeena, baina seguritate gutxikoa. Harritz egiten da. Harriak seguritate handia izan beharko du, bestela, presa lurrera joanen litzateke. Horma oso fina dugu. Goitik ikusita, ondoko irudia du.



D - 9

Kontrafuerte-presa.

Ez da grabitate presa, ez eta bobeda presa ere, baina bietako zerbait ba du.

E. ERGUIN